

Unitatearen laburpena



Hiztegia – Komunikabideak

Pantaila Irudiak dituen aparatu elektronikoen baten azala

Urrutiko aginte Urrutiko gailu elektronikoen bat kontrolatzeko tresna

Telebista-saioa Telebistan normalean ematen den mugimenduzko irudi-multzoa

Kazetari Egunkari, aldizkari, telebista edo irrati baten bidez informazioa ematen duen pertsona

Mikrofono Soinua altuago edo indartsuago jotzeko tresna

Zinema-izar Filmetan lan egiten duen eta oso famatu egin den pertsona

Irakurmena: dibulgaziozko testua

LABURPENA Dibulgaziozko testu bat zer den eta zein ezaugarri duen ikasi dugu. Ubeldurak, kolpeak eta hanturak zer diren ikasi ditugu.

HITZ ZAILAK Zain, sortu, hantura

ESTRATEGIAK Irakurketa ulertzen laguntzeko, modu aktiboan lan egingo dugu, hiru zatitan banatuta, hainbeste larritu ez daitezten.

Idea nagusiei buruz eta kontzeptuen edo hiztegiaren zalantzei buruz galdetuko diegu ikasleei.



Elkarrizketa

Ezagutzen ez dugun norbaiti buruz gehiago jakiteko, **elkarrizketa** bat egin dezakegu.

Elkarrizketa bat bi pertsonen arteko solasaldi bat da. Bertan daude:

- **Elkarrizketatzailea**: galderak egiten dituena.
- **Elkarrizketatua**: galderei erantzuten diena.

Komunikabideek beren lanarengatik, zerbaiti buruz duten iritziarengatik... interesgarriak diren pertsonak elkarrizketatzen dituzte.

Onomatopeiak

Soinuak imitatzen dituzten hitzak dira onomatopeiak.

Onomatopeiak antzemateko:

1. Pentsatu soinu batean.
2. Idatzi edo bilatu testuan soinua, entzuten den bezala.

miau, au, kurrin...



Letra larria izen propioetan

1. Pertsona, maskota edo leku baten izena bada, **letra larriz** idazten da.

bilbo (hiriaren izena) > Bilbo

2. Bestela, **letra xehez** idazten da.

etxea

Elezaharrak

Elezaharrak ipuinen antzeko **istorio laburrak** dira.

Elementu errealak eta asmatutakoak nahasten dituzte.

Elezaharrak kontatzen dituzten istorioak **aspaldi** gertatu ziren



-t(z)era, -t(z)eko

Egitura hauek aditz-oinari eransten zaie eta perpausen **helburua** edo **asmoa** adierazten dute.

- **-t(z)era**: joan, etorri, eraman... erako aditzekin erabiltzen da.

Zertara? galderari erantzuten dio.

- **-t(z)eko**: Zertarako? Galderari erantzuten dio.

Landareak ureztatzera joan naiz.
Betaurrekoak hobeto ikusteko erabiltzen ditut.

Pasadizoa

Pasadizo bat gertatu den gauza bitxi edo dibertigarri baten kontakizuna da. Pasadizo bat idazteko:

- Pentsatu zer ordenatan gertatu den.
- Idatzi pasadizoa esaldi erraz eta argiekin. Izan laburra.
- Erabili honelako adierazpenak: Hasieran, lehengo egunean, bat-batean, orduan, azkenean...

